

**Edurne Begiristain** Gasteiz

2019ko irailetik da Gorka Urtaran (Gasteiz, 1973) Eudel Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalen elkarteko presidente. Gasteizko alkate ere bada, eta bi karguek ematen dioten eskarmentuan oinarrituta mintzo da tokiko erakundearen erronken inguruan. Usfe du egungo garai aldakorretan udalek «zuhur» jokatu behar dutela, baina zeruertzean bi helburu argi edukita: tokiko autonomia eta nahikotasun ekonomikoa bermatzea. Eudelek 40 urte bete dituela baliatuta elkarrizketatu du BERRIAK.

**Aurrera begira, zein erronka ditu Eudelek?**

Gure lehentasuna da tokiko erakundearen autonomia eta nahikotasun ekonomikoa bermatzea. Baditugu, halaber, 2030erako Agendarekin lotutako bestelako kezka batzuk ere. Azken hilabeteotan lan eskerga egin dugu proiektu estrategikoak agenda horretan sartzeko, baina baita gizarte garapena lortzeko, ekonomikoki lehiakorrak izateko, jasangarritasuna lortzeko eta gobernantza berri bat bultzatzeko ere.

**Eudelen 40. urtemugaren harira egindako ekitaldian esan zenuen udalgintzari esker gizarte hobea lortu dela. Zer esan nahi zenuen?**

Udala herritarrengandik gertuen dagoen instituzioa den heinean, herritarren emozioak kudeatzea ere badagokio. Herritarren arteko harremanak oinarritu daitezke arauetan eta sentimenduetan, eta sentimenduetan oinarritzen direnean, askatasuna, berdintasuna, giza eskubideen defentsa eta ongizatea bezalako balioak indaritzen dira. Udalgintza gizartearen emozioen kohesionatzaile dela esango nuke.

**Udalen lana aitortutako lan bat da?**

Gero eta gutxiago. Azken urteotan politika gero eta okerrago ikusia dago, eta herritarrei oso nekeza egiten zaie edozein alkateren edo udalaren lana goraiatzea. Gu ez gara hona etorri herritarren txaloak jasotzera, baina egia da gaur egun are zailagoa dela herritarrek gure lana aitortzea. Bere herriarekin oso engaiatuta eta musu truk lan egiten duen jendea dago udal mailan, baina, hala eta guztiz ere, askotan zaila izaten da lan horri aitortua izatea.

**Garai aldakorrek bizi ditugu. Estualdi ekonomikoak sumatzen ari zarete toki erakundeetan?**

Pandemian bertan bizi izan ditugu estualdiak, baina ez nuke esango oraintxe udalak egoera latza



RAUL BOGAJO / FOKU

## «Udalek interes goreneko proiektuetan parte hartu behar dute»

**Gorka Urtaran**

Eudeleko presidentea eta Gasteizko alkatea

Eusko Jauriaritzaren Ingurumen Administrazioaren Legeari Eudelek egindako kritikak apaldu ditu Eudeleko presidentek: «Ez gaude kontra». Udalen autonomia jarri du lehentasun gisa.

BERRIA

Larunbata, 2022ko maiatzaren 21a

pairatzen ari direnik. Aurreikusia genuena baino diru gehiago jaso dugu, eta ez iaz, ez aurten, ez dugu inolako estutasun ekonomikorik izan. Badakigu familia eta enpresa asko gaizki pasatzen ari direla; haiengandik gertu egon behar dugu. Baina, aldi berean, egoera hau baliatu behar dugu inbertsioak egiteko eta gure hiriak eta herriak modernizatu eta eraldatuko duten prozesua bultzatzeko. Egoera aldakorrek eragina dute gure ekonomian, baina udalok gaitasuna erakutsi dugu egoera horietara egokitzeko, eta gure kontuak aurrera ateratzeko. Hala ere, zuhurrak izan behar dugu ez dakigulako zer gertatuko den datozen hilabeteetan.

**Egunerokoak eragin handia du udaletan. Nolako arazoa izaten ari da argindarraren prezioaren eta inflazioaren gorakada, esaterako?**

Eragina izaten ari dira, zalantzarik gabe. Gasteizen, adibidez, aurreikusia genuen argiteria publikoan ia bost milioi euro gastatzea, baina prezioek horrela jarraituz gero, faktura bikoiztu egingo da urtearen amaieran. Gainera, hirian badaude 325 auzo komunitate energiaren merkatu askean egotera behartuta daudenak, eta milioi bat euro bideratuko diegu haien fakturaren zati bat arintzeko. Udalok ere pairatzen dugu energiaren garestitzea, baina auzo komunitateek ere bai, eta bereziki merkatu askera joatera behartuta dauden auzo komunitate horiek.

**Jauriaritzaren Ingurumen Administrazioaren Legea kritikatu zenuen, udalen eskumenetan esku hartzen duela iritzita.**

Eudelen helburu nagusien artean dago tokiko erakundearen autonomia babestea, baina batzuetan badira proiektu batzuk tokiko politikatik at egon daitezkeenak, udalaz gaindiko proiektuak direlako. Gu ez gaude horien aurka. Eudelen esan duguna da figura hori erabiltzekoak badira ongi justifikatu beharko dela interes publikoa eta interes gorena zer den, aukeratutako kokapenak egokia izan beharko duela, eta prozesu osoan zerikusia duten udalen esku hartzea aintzat hartu beharko dela. Zuzenbide konparatuan, gainera, ez da fenomeno berria: Nafarroan figura horrek urte asko daramatza indarrean, hainbatean erabilia izan da, onerako, eta inork ez du pentsatu horrek udalen autonomia urratuko duenik.

**Lege horrek ez du kolokan jarritzen udalen autonomia?**

Ez dut uste. Lege horrek helburu garrantzitsu batzuk baditu, besteak beste klima aldaketaren aurka-



# «Gasteizen gehiengo bat behar da hiri proiektuak martxan jartzeko»

**E.Begiristain** Gasteiz

Gasteizko alkate moduan bigarren agintaldia amaitzeko urtebete falta dela, legealdiaren balantzea egiteko tarte hartu du Urte-ranek. Aurrera begira, lehentasun argia du: hiriburua «jasangarriagoa» egitea. Hala ere, ez du argitu 2023ko udal hauteskundeetan alkategai izango den: «Gero gerokoak».

**Osasun krisiaren ondorioz lehentasunak aldatu behar izan ditu udal gobernuak?**

Zalantzarik gabe. Ongizatea eta osasuna lehenetsi ditugu, eta gainerakoa bigarren maila batean geratu dira. Beste lezio bat ere utzi digu izurriak: erakutsi digu gure herrien eta hirien modernizazio eta eraldaketa prozesuak bizkortu behar ditugula, planetak dituen larrialdiei ahalik eta azkarrena erantzuteko.

**Sektore zaurgarrienak babesteko zein neurri hartu dituzue?**

Politikaren lehentasuna herritar guztien ongizatea bermatzea da, eta gizarte politiketan egin dugun ahalegina da horren adierazle. Adibidez, 2015ean etxez etxeko laguntzan 2,5 milioi euro gastatu genituen, eta orain 14 milioi bide-

ratu ditugu. Sentsibilitate hori ezin dugu inoiz galdu; hori izan behar da bidea.

**Krisi honekin nabarmen azaleratu da etxebizitzaren arazoa. Zein gogoeta egiten duzu?**

Gasteizen etxebizitza bat alokatze egon daitezkeen arazo ekonomikoez landa, badago beste arazo larri bat: familia batzuek ezin dute merkatu librean etxebizitza bat alokatu. Lurzorua udalerririk horretako herritarren ondarea da, eta, beraz, Jaurilaritza jabetu behar da etxebizitza babestuaren sustapenean lehentasuna izan behar dutela hor erroldatuta dauden pertsonen.

**Azken urteotan, Gasteizen lurzoruaren kontsumoa asko handitu da. Ez al dago eredu jasangarri batekin kontrajarria?**

Lurzoruaren kontsumoa handitzea ezin da izan lehen aukera. Badaude beste bide batzuk. Birgaitzean aukera on bat dago gure etxebizitza babestuek sustatzeko. **2030. urterako deskarbonizazio muga lortzeko Europako Bata-sunak aukeratutako hirien artean dago Gasteiz. Egingarria da?** Asmo handiko helburua da, ez da erraza izango; baina apustu sendoa egingo dugu lortzeko.

**Noizko egongo da prest Martxoaren 3ko Biktimen Oroime-nezko Zentroa?**

Zentroaren estatutuak lantzen ari gara. Gure asmoa da proiektu hau ahalik eta azkarrena martxan jar-tzea.

**Biktimek salatu dute orain arte ez dutela esku hartzeko era izan.**

Zilegia da euren ikuspuntua. Zentro honetan biktimen tokia oso garrantzitsua da, eta izango dute beren parte hartzea, zalantzarik gabe. Proiektu hau aterako da de-non artean, bestela ez da aterako.

**Urtebete falta da udal hautes-kundeetarako. Alkategai izango zara atzera?**

Ikusi beharko dugu. Orain ez gaude horretan, ez alderdia, ez herritarrek... Orain udal gober-nuan buru-belarri ari naiz lanean. Eta gero gerokoak. Ikusi be-harko dugu zer esaten duten alderdikideek eta herritarrek.

**EAJ eta PSE-EE gehiengo osorik gabe ari zarete gobernatzen. Traba ala akordio zabalagoak lortzeko akulu da?**

Gutxiengoan egoteak kalte egiten dio hiriari. Gasteizko Udalean gehiengo bat behar da, ez arrabola pasatzeko, hiri proiektuak martxan jartzeko baizik.

ko borroka indartzea. Alde horretatik positiboa da, eta barnean hartzen du interes publiko gore-naren figurá. Horrelako neurriak erabiltzen direnean ongi justifikatu behar dira eta proiektuetan zeri-kusia duten udalek parte hartu behar dute. Bestela, *nimby* efektua gerta daiteke: guretzat nahi ez ditugun proiektuak beste udalerririk batzuetan jartzea onartzen dugu.

**Gasteizko Udalaren autonomia kolokan ikusi duzu Subillako gasputzua dela eta Jaurilaritzarekin izandako ika-miken harira?**

Jaurilaritzaren ikuspuntua eta Gasteizko Udalarena, biak dira zi-



**Izurrian izan ditugu estualdiak, baina ez nuke esango oraintxe udalak egoera larria pairatzen ari direnik»**

**«Energiaren menpekotasunak izugarritzeko kaltea egin die familiei, enpresei, ongizateari eta lehiakortasunari»**

legiak. Gasteizko Lurralde Antolaketa-rako Plan Orokorra ez zuen aukerarik ematen horrelako us-tiapien bat egiteko, eta Espainiako Klima Aldaketaren Legeak debekatu egiten du gasaren ustiaketa. Zergatik aztertu nahi duzu gauza bat gero ustiari ezin baduzu? Ez dauka zentzurik. Hiri berdea ga-

ren heinean, apustu egin beharko genuke energia berriztagarrien alde. Beste alde batetik, uste dut Jaurilaritzari lagundu behar diogu energia berriztagarrien aldeko proiektuak jorratzen. Denok erabiltzen badugu tokiko autono-mia aitzakia moduan proiekturik aurrera ez ateratzeko, arazo larri bat izango dugu hemendik gutxi-ra. Gerraren testuinguruan, argi geratu da energiaren menpekotasunak izugarritzeko kaltea egiten diela gure familiei, enpresei, ongizateari eta lehiakortasunari. Independentegoak izango gara energia berriztagarrien bidetik, eta ez gasaren bidetik.

**EAEko Hezkuntza Legearen oinarria izango den akordioan jasota dago segregazioa amaitu aldera udal bulegoak irekiko direla matrikula-zioa egiteko. Zer iritzi duzu?**

Nik ez nuke esango gure udalerrietan segregazio arazo bat dagoenik, baina bai kontzentrazio bat, etorkizunari begira oso

arriskutsua izan daitekeena. Ongi aztertu behar dugu nola bizi diren kanpotik etorritako etorkinen bigarren belaunaldiko herritar horiek, zer-nolako aukerak dituzten, eta zer-nolako aldeak dauden haien eta gainontzekoen artean. Udalok badugu ardura bat, baina beste esparru batzuek ere bai.